




Bob EDMC

Kolore, tamaina eta gustu ezberdineko 60 sagar mota desberdin dira ikusgai Hendaiaiko Landare Kontserbatorioko erakusketan abenduaren 9a arte.

Euskal Herriko sagarrondoak salgai Hendaiaiko Abadiako eremuan

Euskal Herriko sagar mota ezberdinak ezagutarazteko erakusketa antolatu du Hendaian Abadiako Eremuak abenduaren 9a arte. Otsailaren bukaera arte bertako sagarrondo mota ezberdinak erosteko aukera ere egongo da. Sagar mota gustukoena atzeman ahal izateko sagar mota ezberdinak dastatzeko eskaintzen dute.



Bob EDMC

Kontserbatorioko arduradun Ganix Gabrieresek sagarrondo tartean.

ZUHAITZAK KIMATZEKO IKASTAROAK

Ipar Euskal Herriko Landare Kontserbatorioak fruituak ematen dituzten zuhaitzak kimatzeko ikastaroak ere eskaintzen ditu martxoan. Abadiako Eremua kostaldetik hurbilegi dagoenez, zuhaitzoi nahi den forma ezin dela eman azaldu zuen bertako ardu-

radun Ganix Gabrieresek, horregatik, ikastaroak Kontserbatorioak Azkainen duen eremuan eskaintzen dituzte. Ikastaro oso praktikoak direla adierazi zuen Gabrieresek, baita kimatzearen zientzian malla ezberdinak dituzten pertsona guztiei irekia dela ere.

dastatu. Landare Kontserbatorioak Abadiako eremuan duen hektarea bateko landa zelaian sagarrak eta gereziak daude bereziki. Eremu txikia izanik, salgai diren zuhaitzak ez dituzte bertan landatzen, horregatik, nahi den arbola bertan eskatu behar da eta gero bila joan. Iaz 100 bat pertsonak 300 fruta-arbola eskatu zituzten. 1993an Kontserbatorioa sortu zenetik eta zuhaitzen salmentarako eskaintza egiten hasi zirenetik, eskaera etengabe joan da gorantz.

Abadiako Eremuko Kontserbatorioko arduradun Ganix Gabrieresek nabarmendu zuen zuhaitzak otsailaren bukaera arte eska daitezkeen arren, onena eskaera ahalik eta lasterren egitea dela. Bi arrazoi aipatu zituen horretarako; bate-tik, zuhaitzak ahalik eta goizen landatzea delako onena, eta bestalde, fruitu-arbola mota berezi bat nahi izatekotan, eskaera goiz egin ezan mota hori bukatzea posible delako.

Onarpen handiena duten zuhaitzen artean sagarrondoak eta gereziak daude. Sagarraren artean anixa da arrakasta-

tsuena. Anis zaporea duen sagar mota horrek azpimota ezberdinak ditu eta denen artean jendeak gehien eskatzen duena udare-sagarra da. Udazkeneko sagarra da anixa, baina udakoa den Andra Mari sagarrak ere oso harrera ona izaten du. Jende gehien eskaerak biltzen dituzten gereziak Itsasuko gerezi beltza eta xapata dira.

Fruitu horiek eta beste guztiak zeintzuk diren eta nolakoak diren azaltzeko Abadiako Eremuak katalogo bat argitaratu du. Erakusketan sagar ezberdinen ondoan mota bakoitzaren izena agertzen da, baita zein herritatik ekarria izan den ere. Zenbait sagarren ondoan, gainera, duten zaporea, euren iraupena eta antzeko datuak ere atzeman daitezke.

LANDARE KONTSERBATORIOA

Abadiako Eremua Akitaniako Landare Kontserbatorioen parte da eta Euskal Herriko fruituengatik nabarmentzen da. Saltzeko diren zuhaitzak Montequieu dagoen Akitaniako Kontserbatorioaren baratzean landatzen dituzte. Landare Kontserbatorioaren helburua eskualdeko landare-ondarea zaindu, iraunarazi eta balioztatzea da.

Ondarea bizirik atxikitzeko lana egina izan bada ere, horrekin nahikoa ez dela nabarmendu zuen Kontserbatorioko arduradunak. Gizartearen beharra dagoela eman zuen aditzera, eta orain jendeak euren etxeetan Euskal Herriko fruitu motak landatu behar dituela erantsi zuen. Estandarizaziotik atera eta gure ondare naturala gordetzeaz gain, dauden mota ezberdin guztien artean gustu guztietarako fruituak badirela aipatu zuen Gabrieresek.

Gure kulturaren sagarrak duen garrantzia nabarmendu zuen ondoren Ganix Gabrieresek. Hala, sagardoaren kultura izan zuen hizpide. Izan ere, duela urte batzuk Abadiako Eremuan sagardoa eta sagar zukua egin

hasi ziren, etxean sagarrondoak dituzten jendeari sagardoa egitearen aukera ere hor dela jakinarazteko. Hasieran sagarrak Urruñako Txopinondo sagardotegian sakatzen bazituzten ere, merkatuan merke eros daitezkeen dolareak ere badirela jakinarazi zuen Gabrieresek eta bere

raiek horrelako bat erosi dutela aipatu zuen. Eskola eta ikastolentzako bitak ere antolatzen dituzte gure herriko landare-ondarea ezagutarazteko eta gatzetxoak naturara hurbiltzeko.